

# **BILBOKO HEZKUNTZA FAKULTATEAREN (BHF) II. PLAN ESTRATEGIKOA**

**2023-2026**



Bilboko Hezkuntza Fakultateko Batzarrak onartua 2023ko ekainaren 27an

## **Aurkibidea**

1. Aurrekariak
2. Eginkizuna eta ikuspegia
3. Zeharkako ardatzak eta ardatz estrategikoak
4. 2023-2025 urteetarako ardatz, helburu eta ekintza estrategikoak
5. Lorpen adierazleak eta emaitzen neurketa
6. Plana egiteko metodologia
7. Eranskinak

## 1. Aurrekariak

Bilboko Hezkuntza Fakultatearen (BHF) II. Plan Estrategikoa da datozen hiru urteetarako fakultatearen helburuak finkatzen eta helburu horiek inplementatzeko modua zehazten laguntzen duen kudeaketa tresna. Helburuak betetzeko eta aurreikusitako ekintzak burutzeko egin behar dugun bidea ezartzen du, kontuan izanik gizartetik eta gure inguruko, Estatuko eta nazioarteko hezkuntzatik datozen aldaketak eta eskaerak.

Bilboko Hezkuntza Fakultatearen II. Plan Estrategikoa sortu da ikastegiaren, hezkuntza komunitatearen eta gizartearen premien azterketatik, unibertsitate ikasketen garapenari, ikerketari eta hezkuntza arloko ezagutzaren transferentziari dagokienez, bai eta fakultatearen I. Plan Estrategikoaren betetze mailatik ere (eskuragarri hemen: <https://tinyurl.com/2mrz62gf>).

II. Plan Estrategikoaren diseinua eta garapena oinarritzen dira Bilboko Hezkuntza Fakultatearen egoeraren, funtzioen eta UPV/EHUren estrategia orokorrean egin dezakeen eta egin behar duen ekarpenaren analisisian. Ekintza eta jardun lerro horiek aipatzen dira UPV/EHUren 2022-2025 Plan Estrategikoan.

Beraz, dokumentu honen xedea da datozen hiru urteetan egingo diren ekintza nagusiak zehaztea, ikastegiaren funtzionamenduan inplikaturako eragile guztiekin eginiko gogoeta eta analisi prozesu batean finkatu diren fakultatearen helburuak betetzeko. Horrela, helburu nagusia da Bilboko Hezkuntza Fakultatea erreferente izatea hezkuntza testuinguruan, honako hauen bidez:

-Profesional bikain eta konprometituen prestakuntza, kalitatezko graduak eta graduondoko ikasketak bermatuta.

-Autonomia, estatu eta nazioarte mailan inpaktua izango duen erreferentziazko ikerketa.

-Fakultate jasagarri bat eraikitzea, bat etorriko dena Garapen Jasagarriko Helburuekin (GJH), bai eta lagunkoia ere, bere baitan diharduten pertsona eta profesional guztiak zaintzen dituen.

-Euskal hezkuntza komunitatearekin konprometitutako fakultate bat eraikitzea, bertan sortzen den ezagutzaren transferentziaren eta hezkuntza berrikuntzaren bidez, harreman estuan erakundeekin.

Fakultateko dekanok taldeak diseinatu, kudeatu eta gidatu du gogoeta eta analisi estrategikoko prozesua, eta barruko eta kanpoko interes taldeek parte hartu dute. Zehazki, fakultatearen kolektiboetako 89 lagunek parte hartu dute, eta gogoeta egin, aztertu, eztabaidatu eta hainbat ekintza proposatu dituzte Plan Estrategiko hau sortzeko. Gainera, fakultatekanpoko 20 pertsonaren ekarpena jaso dugu, hainbat kolektibo, hezkuntza erakunde, ikastetxe eta Gizarte Hezkuntzako erakundetakoak. Beren ikuspegia eskaini digute, etorkizunean hobetzeko.

## 2. Eginkizuna eta ikuspegia

**Eginkizuna:**

Bilboko Hezkuntza Fakultatea konprometituta dago hezkuntza jasangarri, inklusibo, erresiliente eta kalitatezkoarekin, egungo eta etorkizuneko desfioei erantzuteko, prestakuntzaren, ikerketaren, transferentziaren eta berrikuntzaren bitartez, euskara eta euskal kultura sustatuta eta errespetatuta, hezkuntzaren esparruan itun autonomiko eta internazionalak eraikitzen zabalik.

### **Ikuspegia:**

-Bilboko Hezkuntza Fakultateak izan nahi du kalitatezko hezkuntzaren erreferente publiko eta globala, fakultate jasangarri bat bihurtuta, bikaintasunean oinarritutako prestakuntza eskaintza batekin, eta konprometitua hezkuntza komunitatearekin, kanpoko hezkuntza eta gizarte agenteekiko lankidetzaren, inpaktuko ikerketaren eta sortutako ezagutzaren transferentziaren bidez.

-UPV/EHUren eginkizunarekin bat etorrituz, Bilboko Hezkuntza Fakultateak kalitatezko prestakuntza ematen die bere ikasleei, oinarritua ikerketan, hezkuntza berrikuntzan eta metodo zientifikoa duen pentsamendu kritikoan, eta konprometitua kalitatezko hezkuntza baten garapenean.

### **3. Zeharkako ardatzak eta ardatz estrategikoak**

UPV/EHUren 2022-2025 Plan Estrategikoak zeharkako ardatz eta ardatz estrategiko batzuk ezartzen ditu, eta horiek garatzeko ekintzak. Bilboko Hezkuntza Fakultatea lerrokatuta dago zuzenean ardatz horiekin, bere helburuak eta ekintzak diseinatzeko, eta, UPV/EHUren parte izanik, haren garapen globalari ekarpena egiteko, fakultatearen beraren etengabeko hobekuntzaren bidez.

Ardatz estrategikoak dira nazioartekotzea, eraldaketa digitala, Garapen Jasangarrirako Helburuak eta komunikazioa, eta ekintza zehatzen bitartez garatzen dira, adierazle espezifikoaren bidez etengabe ebaluatu eta neurtu egiten direnak.

Bilboko Hezkuntza Fakultateak, bere eginkizunean eta ikuspegian, bere burua definitzen du hezkuntza berrikuntzarekin konprometitutako ikastegi gisa, ikerketan eta funtzionamendu jasangarri baten eraikuntzan oinarritua, prozesuak errespetatu eta pertsonak zaintzen dituena. Alderdi horiek guztiek ekarpena egiten diote kalitatezko euskal hezkuntza baten garapenari, hezkuntza erakundeen eta fakultatearen arteko lankidetzan eta komunikazioan oinarritua.

Hori horrela, 28 ekintza zehatu dira, lagungarri izango direnak zeharkako ardatzen bidez deskribatzen dena eta ondoren aipatzen diren ardatz estrategikoen ekintza zehatzen bidez garatzen dena lortzeko:

#### **Prestakuntza ardatza**

##### UPV/EHU helburuak (H), BHFk ekintza espezifikoaren bidez sustatuak

-1H. Oreka bat sortzea graduaren eskaintzaren (egonkorra eta tokikoa, nagusiki) eta graduondokoen eskaintzaren (dinamikoagoa eta nazioartekoagoa) artean.

-4H. Kalitatezko berezko eta etengabeko prestakuntza sustatzea, gizartearen eskaerari erantzuteko.

-5H. Bultzada ematea IKD hezkuntza ereduari eta GJHein konprometitutako irakaskuntza berrikuntzako esparru berriari, diziplina anitzeko prestakuntza indartuta, baita zeharkako gaitasunak eta gaitasun digitalak ere.

-6H. Tituluaren enplegarritasuna sendotzea, hartu-emanak estutuz ingurune sozioekonomikoarekin, eta ekintzailtza sustatuz.

### **Ikerketa eta transferentzia ardatza**

#### UPV/EHU helburuak (H), BHFk ekintza espezifikoaren bidez sustatuak

-4H. Ikerketa erronkak eta GJHen agenda (2030 EHUagenda) lotzea.

-5H. Bultzada ematea gizartearen kultura aberastasunean zuzeneko eragina duen ikerketaren aitortzari.

-6H. Ekintzailtza eta ezagutzaren transferentzia sustatzea.

-7H. Kanpoko aliantzak indartzea, tokikoak nahiz nazioartekoak.

### **Kultura eta gizarte ardatza**

#### UPV/EHU helburuak (H), BHFk ekintza espezifikoaren bidez sustatuak

-1H. Gizartearekiko komunikazioa hobetzea, baita ezagutzaren dibulgazioa eta UPV/EHUren kultura legatua ere.

-2H. Lankidetzaren hitzarmenak eta proiektuak babestea, euskal sare sozioekonomiko eta kulturalarekin.

-3H. Lider izatea euskal gizartearen kultura zientifikoan eta humanistikoan, arreta berezia jarriz euskaran eta euskal kulturaren.

-4H. Erreferentzia eredu gisa indartzea genero berdintasunean, inklusioan eta garapen jasagarrian.

-5H. Gizartearen beharrei, erronkei eta arazoei lotutako jarduerak egitea, bai irakaskuntza eta ikerketaren arloan, bai ezagutzaren transferentziaren arloan.

### **Pertsonak ardatza**

#### UPV/EHU helburuak (H), BHFk ekintza espezifikoaren bidez sustatuak

-2H. Irakasle-ikertzaileen eta AZPko langileen beharren urte anitzeko plangintza bat egitea, eta haien ibilbide profesionalean laguntzea.

-3H. Pertsonen egokitzapena eta prestakuntza indartzea, aintzat harturik unibertsitatearen Eginkizuna eta Ikuspegia.

#### 4. 2023-2025 urteetarako ardatz, helburu eta ekintza estrategikoak

UPV/EHU ardatzak eta helburuak	BHF helburu estrategikoak (HE)	BHF ekintza estrategikoak (EE)	Arduradunak
PRESTAKUNTZA ARDATZA 1. helburua	1HE. <b>Nazioartekotzea</b> eraikitzea eta <b>sendotzea</b> , BHFren nortasunaren parte gisa.	1.1 EE. Praktiken nazioarteko plan bat diseinatzea eta ezartzea, lankidetzak praktikak sustatuta.	Dekanotza (Gizarte Hezkuntzako Gradu Praktiketako eta Transferentziako dekanordea, Lehen Hezkuntzako eta Haur Hezkuntzako Graduetako Praktiketako eta Genero Berdintasuneko dekanordea, Nazioarteko Harremanetako eta Mugikortasuneko dekanordea)
		1.2 EE. <i>Incoming</i> ikasleen harrera plana diseinatzea eta ezartzea EAEko ikastetxeetan, eta euskal sare publikoko ikastetxeetara zabaltzea.	Dekanotza (Gizarte Hezkuntzako Gradu Praktiketako eta Transferentziako dekanordea, Lehen Hezkuntzako eta Haur Hezkuntzako Graduetako Praktiketako eta Genero Berdintasuneko dekanordea, Nazioarteko Harremanetako eta Mugikortasuneko dekanordea)
		1.3EE. Irakasleen eta ikertzaileen mugikortasuna sustatzeko bideak garatzea, eta estatuko eta nazioarteko ikertzaileak erakartzea fakultatera.	Dekanotza (Nazioarteko Harremanetako eta

			Mugikortasuneko dekanordea)
PRESTAKUNTZA ARDATZA 4. helburua	2HE. Hezkuntzaren behar eta erronkekin lerrokatutako graduondoko eskaintza sustatzea.	2.1 EE. Egungo eta etorkizuneko behar eta erronkei erantzungo dien graduondoko eskaintza diseinatzea, urte hauetan indarrean egon diren Hezkuntza Legeetan eta kanpo agenteekiko lankidetzan oinarritua.	Dekanotza (Akademia Antolakuntzako dekanordea)
PRESTAKUNTZA ARDATZA 5. helburua	3HE. <b>Hezkuntzako graduen</b> eraikuntza eta garapena sustatzea, egungo hezkuntzaren eskaera eta erronkei erantzungo dietenak, bikaintasuna, kalitatea eta nazioartekotzea bilatzeaz gain.	3.1 EE. Fakultateak ematen dituen graduetak eta graduondokoetak sarrera profilak eta matrikulazioa aztertzea, talentua erakartzeko estrategiak sortzeko.	Dekanotza (Gradu Amaierako Lanen eta Graduak eta Graduondokoak Koordinatzeko dekanordea, Akademia Antolakuntzako dekanordea, Kalitate, Jasangarritasun eta Ikerketako dekanordea)
		3.2 EE. Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako gradu bikoitz hirueleduna diseinatzea.	Dekanotza (dekanoa, Akademia Antolakuntzako dekanordea)
		3.3 EE. Graduak eta graduondoko prestakuntza eskaintza berriak sortzeko aukera aztertzea.	Dekanotza (dekanoa, Akademia Antolakuntzako dekanordea)
		3.4 EE. Nazioarteko titulazio bikoitza izango duten gradu/graduondoko ikasketak sortzea eta eskaintzea.	Dekanotza: (dekanoa, Nazioarteko Harremanetako eta Mugikortasuneko dekanordea, Gradu Amaierako Lanen eta Graduak eta Graduondokoak Koordinatzeko dekanordea)
		3.5 EE. Egitura modularra berrikustea, hobetzeko, kontuan izanik egitura horretan parte hartzen duten eragile guztien iritzia.	Dekanotza (Gradu Amaierako Lanen eta Graduak eta Graduondokoak

			Koordinatzeko dekanordea)
PRESTAKUNTZA ARDATZA 6. helburua	4HE. <b>Graduko ikasleei laguntzeko eta orientatzeko</b> plana egitea.	4.1 EE. Graduaren 4. mailako ikasleei laguntzeko plan bat diseinatzea eta ezartzea, ikasle egresatuaren etorkizun profesionala orientatzeko.	Dekanotza (Gradu Amaierako Lanen eta Graduak eta Graduondokoak Koordinatzeko dekanordea)
IKERKETA ETA TRANSFERENTZIA ARDATZA 4. helburua 5. helburua	5HE. BHF <sub>n</sub> egiten den <b>ikerketaren bikaintasuna</b> sustatzea.	5.1 EE. Ikerketa egitura egonkorra sortzea, hezkuntza kalitatea hobetzeko (GJH4), eta ikerketa sustatzea graduak eta graduondoko ikasleen artean.	Dekanotza (dekanoa, Kalitate, Jasangarritasun eta Ikerketako dekanordea)
		5.2 EE. Liburuen argitalpena edo ekitaldi akademikoaren antolakuntza finantzatzeko barne deialdiak sortzea eta berrikustea.	Dekanotza (idazkari akademikoa, Kalitate, Jasangarritasun eta Ikerketako dekanordea)
IKERKETA ETA TRANSFERENTZIA ARDATZA 6. helburua 7. helburua  KULTURA ETA GIZARTEA ARDATZA 5. helburua	6HE. BHF <sub>n</sub> sortutako <b>ezagutza zientifikoa</b> gizartera eta gure inguruko hezkuntza komunitatera transferitzeko ekintzak sistematizatzea eta sustatzea.	6.1 EE. Transferentzia/ikerketa/prestakuntza jardura osagarriak erregistratzeko formulario bat sortzea, Bilboko Hezkuntza Fakultatearen babesean.	Dekanotza (Idazkaritza Akademikoa)
		6.2 EE. Ikerketa eta transferentzia bultzatzeko Gizarte-Enpresa ikasgelak sortzea.	Dekanotza (dekanoa)
		6.3 EE. Gizarte Hezitzaileen Elkargoarekin, Gizarte Hezkuntzako Graduaren batzordearekin, hirugarren sektoreko erakundeekin eta fakultateko irakasleekin batera, gizarte hezitzaileen gaitasunak eta haien ikasketa amaierako profila aztertzea eta lantzea.	Dekanotza: (Gizarte Hezkuntzako Graduaren Praktiketako eta Transferentziako dekanordea)
KULTURA ETA GIZARTEA ARDATZA 1. helburua	7HE <b>Kanpo eta barne komunikazio</b> bide eraginkorrak eraikitzea.	7.1 EE. Fakultatearen sailtako arduradunekin aldi behin biltzeko, gogoeta egiteko eta eztabaidatzeko foroak sortzea.	Dekanotza (dekanoa, idazkari akademikoa)
		7.2 EE. Ikertaldearen eta graduondoko eta master programen arduradunekin aldi behin biltzeko, gogoeta egiteko eta eztabaidatzeko foroak sortzea.	Dekanotza (dekanoa, idazkari akademikoa)
		7.3 EE. Barne eta kanpo komunikaziorako estrategia eta plana sortzea	Dekanotza (Ikasle, Gizarte proiektio eta Hizkuntzen Kudeaketako dekanordea)



		7.4 EE. Online artxibo bat sortzea, kolektibo arduradunentzat zabalik, fakultatearen kide anitzeko organoen eta estatutu organoen dokumentuak eta aktak gordetzeko.	Dekanotza (idazkari akademikoa)
		7.5 EE. Espazio fisikoak zehaztea fakultatean, irakasleen, ikertzaileen eta bekadunen komunitateak sortzeko.	Dekanotza (dekanoa, administrazio burua)
KULTURA ETA GIZARTEA ARDATZA 1. helburua	8HE. <b>Fakultateak gizartean duen proiektzioa</b> hobetzea.	8.1 EE. Fakultateak gizartean duen irudia aztertzea eta eguneratzea.	Dekanotza (Ikasle, Gizarte Proiektzio eta Hizkuntzen Kudeaketako dekanordea)
		8.2 EE. Graduazio ekitaldia, fakultatearen gizarte proiektzioko ekitaldi akademiko gisa, sendotzeko zer hobetu daitekeen aztertzea.	Dekanotza (dekanoa, Ikasle, Gizarte Proiektzio eta Hizkuntzen Kudeaketako dekanordea)
KULTURA ETA GIZARTEA ARDATZA 2. helburua	9HE. <b>Kanpo eragileekiko harremanak</b> sustatzea.	9.1 EE. Hezkuntza erakundeekiko hitzarmenak eta jarduerak sustatzea.	Dekanotza (dekanoa)
KULTURA ETA GIZARTEA ARDATZA 3. helburua	10HE. <b>Euskararen erabilera</b> sustatzea, fakultateko komunikazio hizkuntza eta eguneroko hizkuntza gisa.	10.1 EE. Euskararen erabilera sustatzea, fakultateko komunikazio hizkuntza gisa, ikuspegi global batetik.	Dekanotza (Ikasle, Gizarte Proiektzio eta Hizkuntzen Kudeaketako dekanordea)
KULTURA ETA GIZARTEA ARDATZA 4. helburua	11HE. <b>Bilboko Hezkuntza Fakultate Jasangarri baten eraikuntza</b> sustatzea.	11.1 EE. Hezkuntza Fakultate Jasangarri bat eraikitzeke plana diseinatzea eta garatzea, bat etorriko dena GJHen garapenarekin.	Dekanotza (Kalitate, Jasangarritasun eta Ikerketako dekanordea)
PERTSONAK ARDATZA 2. helburua	12HE. <b>TEKAZELen funtzioak</b> berrantolatzea eta eguneratzea.	12.1 EE. Administrazio eta zerbitzuetako langileen lanpostuen antolakuntza berrikustea, organigrama bat eta eginkizunak zehaztuta.	Dekanotza (dekanoa, administrazio burua)
PERTSONAK ARDATZA 3. helburua	13HE. Fakultatearen <b>nortasun korporatiboa</b> eraikitzen laguntzea, ikastegiko agenteen prestakuntzaren eta aitortzaren bidez.	13.1 EE. Bideak bilatzea fakultatean egiten diren Gradu Amaierako Lan, Master Amaierako Lan, Moduluko Lan eta Doktorego Tesi onenen aitortza eta aurkezpen publikoa egiteko.	Dekanotza: (Gizarte Hezkuntzako Graduaren Praktiketako eta Transferentziako dekanordea)
		13.2 EE. Irakasle berriei harrera egiteko protokoloa berrikustea eta prestakuntza jardueren programa bat aurkeztea, fakultatearen nortasunari,	Dekanotza: (Kalitate, Jasangarritasun eta Ikerketako

		metodologiei, eginkizunari eta ikuspegiari dagokienez.	dekanordea; Ikasle, Gizarte Proiektzio eta Hizkuntzen Kudeaketako dekanordea)
--	--	--	---

1. taula. BHFren ardatz, helburu eta ekintza estrategikoen arteko lotura.

## 5. Lorpen adierazleak eta emaitzen neurketa

Bilboko Hezkuntza Fakultatearen II. Plan Estrategikoan bildutako helburu eta ekintza estrategikoak zer mailataraino beteko diren neurtzeko, lorpen adierazle (LA) batzuk zehaztu dira ekintza bakoitzeko. Ekintza horiek loturik daude fakultatearen helburu estrategiko batekin eta UPV/EHUren 2022-2025 Plan Estrategikoaren ardatz eta helburu estrategiko batekin (ikus 4. atala).

### 1HE. Nazioartekotzea eraikitzea eta sendotzea, BHFren nortasunaren parte gisa

- 1.1 LA. Eginiko nazioarteko edo lankidetzaren praktiken kopurua.
- 1.2 LA. Ikastetxe publikoetan harrera egin zaion *incoming* ikasle kopurua.
- 1.3 LA. Mugikortasun egonaldiak egin dituen irakasle kopurua.
- 1.4 LA. Fakultatea bisitatzen duen ikertzaile kopurua.

### 2HE. Hezkuntzaren behar eta erronkekin lerrokatutako graduondoko eskaintza sustatzea

- 2.1 LA. Graduondoko programen proposamen berrien kopurua.
- 2.2 LA. Berezko tituluak hedatzeko eginiko ekintza kopurua.

### 3HE. Hezkuntzako graduen eraikuntza eta garapena sustatzea, egungo hezkuntzaren eskaera eta erronkei erantzuniko dietenak, bikaintasuna, kalitatea eta nazioartekotzea bilatzeaz gain

- 3.1 LA. Ikasleak erakartzeko eginiko ekintza kopurua.
- 3.2 LA. Gradu bikoitz hirueledunaren okupazio ehunekoa.
- 3.3 LA. Nazioarteko titulazio bikoitza duen Hezkuntzako Gradu kopurua.
- 3.4 LA. Nazioarteko titulazio bikoitza duen Hezkuntzako Graduondoko kopurua.
- 3.5 LA. Modulu koordinazioa hobetzeko eginiko ekintza kopurua.
- 3.6 LA. Txostenetik eratorritako hobekuntza kopurua.

### 4HE. Graduoko ikasleei laguntzeko eta orientatzeko plana egitea

4.1 LA. 4. mailako ikasleen orientazio profesionalari begira eginiko prestakuntza saio kopurua.

4.2 LA. Jasotako orientazioaren gogobetetze maila.

5HE. BHFñ egiten den ikerketaren bikaintasuna sustatzea.

5.1 LA. Graduondokoak egiten dituen egresatu ehunekoa.

5.2 LA. Doktorego tesia hasten duen egresatu ehunekoa.

5.3 LA. Liburuak argitaratzeko emandako laguntza kopurua.

5.4 LA. Antolatutako ekitaldi akademiko kopurua.

6HE. BHFñ sortutako ezagutza zientifikoa gizartera eta gure inguruko hezkuntza komunitatera transferitzeko ekintzak sistematizatzea eta sustatzea

6.1 LA. Web formulario bidez erregistratutako jarduera osagarri kopurua.

6.2 LA. Sortutako Gizarte-Enpresa ikasgela kopurua.

7HE. Kanpo eta barne komunikazio bide eraginkorrak eraikitzea

7.1 LA. Saitetako arduradunekin urtean eginiko bilera kopurua.

7.2 LA. Ikertaldeetako arduradunekin urtean eginiko bilera kopurua.

7.3 LA. Eginiko kanpo komunikazioko ekintza kopurua.

7.4 LA. Eginiko barne komunikazioko ekintza kopurua.

8HE. Fakultateak gizartean duen proiektzioa hobetzea

8.1 LA. Informazio triptiko/liburuxken hobekuntza eta eguneratze kopurua.

8.2 LA. Fakultatearen webean eginiko hobekuntza eta eguneratze kopurua.

8.3 LA. Graduazio ekitaldian eginiko ekintza kopurua.

9HE. Kanpo eragileekiko harremanak sustatzea

9.1 LA. Kanpo agenteekin sinatutako hitzarmen kopurua.

9.2 LA. Hezkuntzaren eta fakultatearen alorreko erakundeekin eta agenteekin lankidetzan eginiko jarduera kopurua.

10HE. Euskararen erabilera sustatzea, fakultateko komunikazio hizkuntza eta eguneroko hizkuntza gisa

10.1 LA. Euskara sustatzeko eginiko jarduera kopurua.

10.2 LA. Euskara sustatzeko jardueretan parte hartu duten pertsonen gogobetetze maila.

#### 11HE. Bilboko Hezkuntza Fakultate Jasangarri baten eraikuntza sustatzea

11.1 LA. Fakultatearen jasangarritasunari begira eginiko ekintza kopurua.

11.2 LA. Energia aurrezteko planaren inplementazio ehunekoak.

#### 12HE. TEKAZELen funtzioak berrantolatzea eta eguneratzea

12.1 LA. TEKAZELen funtzioak egokitzeko eginiko ekintza kopurua.

#### 13HE. Fakultatearen nortasun korporatiboa eraikitzen laguntzea, ikastegiko agenteen prestakuntzaren eta aitortzaren bidez

13.1 LA. Aitortza ekitaldi kopurua.

13.2 LA. Aitortza jarduerak eragindako gogobetetze maila.

13.3 LA. Harrera hobetzeko eginiko ekintza kopurua.

13.4 LA. Eginiko prestakuntza jarduera kopurua.

13.5 LA. Parte hartu duten irakasleen gogobetetze maila.

## **6. Plana egiteko metodologia**

Bilboko Hezkuntza Fakultatearen II. Plan Estrategikoa egiteko, metodologia hau erabili da:

Planaren gogoeta eta ekarpen saioetan parte hartu dute fakultateko profesionalek, ikasleek eta ikastegiaren kolaboratzaileak diren administrazioek eta erakundeek.



Hona hemen parte hartzaileen blokeak eta haien kideak:

- a. Zuzendaritza
  - a.1. Dekano taldea
  - a.2. Graduen eta moduluen koordinatzaileak
  - a.3. Salletako zuzendariak
  - a.4. Masterren eta graduondokoen koordinatzaileak
- b. Hezkuntza-zientzia komunitatea
  - b.1. Irakasle-ikertzaileak (iraunkorrek, ez-iraunkorrek, hainbat gradu eta modulutakoak, eta graduondokoak)
  - b.2. Graduak eta graduondoko ikasleak
  - b.3. Ikertzaileak eta doktoregaiak
  - b.4. Fakultatearen ikertaldeetako ikertzaile nagusiak eta ikertzaileak
- c. Administrazio eta Zerbitzuetako langileak
  - c.1. AZP
- d. Hartzaileak eta kolaboratzaileak
  - d.1. Practicumeko ikasleak hartzen dituzten erakundeak eta ikastetxeak.
  - d.2. Hezkuntza Formalaren hartzaileak eta kolaboratzaileak (LH, HH, masterrak)
  - d.3. Gizarte Hezkuntzaren hartzaileak eta kolaboratzaileak (GH, graduondokoak)

Talde bakoitzeko ordezkari kopurua zehaztu da kontuan izanik graduen eta egoera profesionalen arteko oreka.

### **Garapen faseak:**

#### **1. fasea: BHFren I. Plan Estrategikoaren ekintzen lorpen maila aztertzea**

I. Plan Estrategikoaren helburuen betetze maila aztertu zen zehazki.

## 2. fasea: hautatzea eta gonbidatzea

Bloke bakoitzeko profesionalak edo pertsonak hautatzea eta gonbidatzea. Parte hartzaileak hautatu ziren ekitatiboki, graduen, graduondokoen eta egoera profesionalen arteko proportzionaltasuna mantenduz.

Gonbidapena egin zen posta elektronikoko bidez, eguna, lekua, ordua eta bilerarako dokumentuak zehaztuta (1. eranskineko Gida, UPV/EHUren Plan Estrategikoa eta BHFren I. Plan Estrategikoa).

## 3. fasea: gogoeta saioak

Saioak 2 ordukoak izan ziren gehienez, eta moderatzaile bat izan zuten, eginkizuntzat izan zuena informazioa, gogoetak eta iradokizunak biltzeko txantiloia betetzea, bai eta denbora eta interbentzioen ordena kontrolatzea ere.

Saioek aurretik zehaztutako gidoi bat izan zuten (ikus 1. eranskina).

## 4. fasea: idaztea

Bloke eta talde bakoitzaren saioen "Informazio, gogoeta eta iradokizun txantiloiak" aztertu ondoren, Bilboko Hezkuntza Fakultatearen II. Plan Estrategikoa idatzi zen. 2023ko ekainaren 27ko Fakultateko Batzarrean aurkeztu zen, onartzeko.

Azkenik, Bilboko Hezkuntza Fakultatearen Osoko Bilkura batean aurkeztu zen. Fakultatearen webgunean argitaratu eta posta elektronikoko bidez zabalduko da.

### Prozeduraren laburpena eta ekintza eta fase bakoitzaren arduraduna:

Ekintzak	Arduradunak
BHFren I. Plan Estrategikoaren ekintzen lorpen maila aztertzea	Dekano taldea
Lan saioen planifikazioa eta deialdia	Dekano taldea
Modulu bakoitzeko taldeen lan saioen garapen eraginkorra	Bileraren arduraduna
BHFren II. Plan Estrategikoa idaztea	Dekano taldea
BHFren II. Plan Estrategikoa onartzea, hala badagokio	UPV/EHUko Bilboko Hezkuntza Fakultateko Batzarra
Planaren zabalkundea eta argitalpena	Kalitate, Jasangarritasun eta Ikerketako dekanordea

## 7. Eranskinak

### 1. eranskina. Lan saioen gidoia

## 1. ERANSKINA

### SAIOEN GIDOIA

**Denbora: 2 h.**

#### **Helburuak:**

1. Bilboko Hezkuntza Fakultatea 2023-2026 urteetan garatzeko ardatz estrategikoak eta zeharkako ardatzak zehaztea eta horiei buruz gogoeta egitea.
2. Bilboko Hezkuntza Fakultatearen indarguneak, ahulguneak, aukerak eta mehatxuak zehaztea eta horiei buruz gogoeta egitea.
3. Inplementazio helburuak, ekintzak eta prozesuak proposatzea.

#### **Gogoeta ardatzak:**

1. Zeharkako ardatzak:
  - 1.1. Nazioartekotzea
  - 1.2. Eraldaketa digitala
  - 1.3. Garapen Jasangarriko Helburuak
  - 1.4. Komunikazioa
2. Ardatz estrategikoak:
  - 2.1. Hezkuntza prestakuntza eta berrikuntza ardatza
  - 2.2. Ikerketa eta transferentzia ardatza
  - 2.3. Kultura eta gizartea ardatza
  - 2.4. Pertsonak ardatza
  - 2.5. Gobernantza eta baliabideak ardatza

#### **Analisirako eta gogoetarako oinarrizko galderak:**

1. Zeharkako ardatzei dagokienez:

Zer bultzatu, zer sustatu eta zeri ekin behar diogu?

Zeri egin behar diogu aurre, zer borrokatu, edo zer gainditu behar dugu?

Zer aprobetxatu behar dugu, zertara egokitu, edo zer hobetu behar dugu?

Zer aldatu, zer zuzendu edo zer birpentsatu behar dugu?

2. Ardatz estrategikoei dagokienez:

Zer bultzatu, zer sustatu eta zeri ekin behar diogu?

Zeri egin behar diogu aurre, zer borrokatu, edo zer gainditu behar dugu?

Zer aprobetxatu behar dugu, zertara egokitu, edo zer hobetu behar dugu?

Zer aldatu, zer zuzendu edo zer birpentsatu behar dugu?